

KRISTAU ATEOEN KONTRA

Orain dela bospasei urtera arte nik ez nekien halakorik zegoenik ere. Zerbait irakurrita neukan, ez osorik, Unamunoren nobela bat non kontatzen omen du abade ateo baten bizitza, santua ere ematen zuena, baina nik nobela hari ez nion kasu handirik egin, behin, akaso, idatzi nuen nola ezin demostratu zitekeen zenbaterainokoa den abade baten fedea, hori bakarrik Jainko Aitak baitaki (cuya fe solo tu conociste), eta hortik aparte kasu handirik ez nion egiten horri. Konfiantza nuen abadeengan.

Lagun bat egin nuen, nire auzoko baten bitartez, eta harekin juntatzen nintzen astean behin taberna batean, biok ginen filosofiako estudiante eternoak, karrera erdi lagata geneukanez, eta behin esan zidan, haserre aurpegia erakutsiz, katoliko ateoak bazeudela, eta Gustavo Bueno filosofoa ipini zidan adibidetzat. Hark esaten omen zuen nola apezpikuak eta kardinalak zeuden Espainian ateoak zirenak. Ateoak ziren baina erlijio kristauari, ekarpen handia egin omen zuelako gure kulturari, kasu egiten zioten, eta aintzat hartu eta praktikatu. Eta hierarkietan aurrean zeudenak ziren gainera. Ni harrituta gertatu nintzen, fenomeno sobrenaturalik normalean kasik inork ez du ikusi inoiz eta pentsamendua ohitu egiten da materialismo-ra baina ateo izaterainokorik ez nuen uste apaizen artean, eta

gainera filosofia bat, korronte bat, osatzen. Kontzienteki gainera.

Arimaren etsaiak omen dira mundua, deabrua eta haragia. Eta katoliko ateo horiek nire arimaren kontrarioak ziren, eta dira. Pentsatu nuen filosofia marxistan afirmatzen dena, hau da, erlijioa kapa popularren kontrarioa dela, populuaaren opioa dela, eta holako, eta handikien zerbitzura zegoela, eta haiekin biltzen zela nagusiki, amistadeak egiteraino (Amos profetaren garaian bezala). Eta holaxe zebiltzanak izango zirela ateo ia, edo behintzat fede eskasekoak, materialistak. Eta dudak eduki nituen abadeekin, batez ere nik hieratiko, distantte, ikusten nituenekin. Eta abadeekin erlaziorik edukitzeko eduki nezakeen esperantza apur hura galdu egin nuen. Ez nintzen aberatsa. Homiliak onak ziren, denak nire modukoen aldekoak, baina gero bakoitza berera, eta begirakunea ere apartatu, kasorik egin ez niri.

Nik pentsatzen nuen nola Biblian esaten den eroez ez dagoela modurik jakiteko nondik aterako diren, eta alferrikakoa dela halakoekin ezer edukitzea. Baina gero, pentsatzen nuen nik neure artean, Jesusek bazuen esan nola bateon bat desatsegin egiten bazaigu orduan beste kilometro bat gehiago egiteko harekin. Baina ni bakartia nintzen, oso bakartia, eta nire estuasunak handitu egiten ziren kristau ateo horien berri jakitean. Eliza osoaz ere dudak egiteko modukoa da jakitea asko daudela ateo direnak kristauen artean, katolikoen artea. Eta beldurra ere eman zezaketen halakoek, halakoen seriotasuna, halakoen hieratikotasuna. Eta Moisesen filma etorri zitzaidan gogora, apaizen kastakoek nola zioten erlijioa asmatua zela herria engainatzeko eta boteretsuen pribilegioak mantentzeko errazago.

Baina interneten begiratu dut, eta hori, filosofiako korronte hori Estatu Batuetan eta European sortua da. Eta badaude izen

batzuk, ez direnak oso famatuak, eta nik soilik gogoan dut Espainiakoa, Gustavo Bueno.

Lurrikara bat izan bazen ere nire ariman, hala ere ez nuen horregatik galdu neure fedea eta neure esperantza. Eta gogoan dut nola Eliza sostengatzen omen den batez ere santuen bitartez, bere baitatik sortzen diren santuen bitartez. Benetako fededunen bitartez, eta ateo katolikoak korronte bat besterik ez direla. Pentsamenduzko korronte bat oso arriskutsua, lan egiten duelako doktrina hustera, itxura hutsa izatera, eta Jainkoaren nahia betetzea ere ikasten ahal da halakoekin ez dela inportanteena. Inportanteena itxura ona mantentzea da halakoekin.

Nik esperantza galdua dut, eta halako notiziekin gehiago, mundu honetako gauzetan. Denbora gehiena bakarrik egiten dut, eta ez dut nire edadean lagunik edukiko dudalako esperantzarik. Ohituta nago. Eta katoliko ateoan berri eduki nuelarik kolpe bat izan zen niretzat, eta esperantza mundanoa, neukakeen apurra, galdu egiten nuen berriro. Atzera ere ohituta nago esperantzak galtzen, eta eskerrak badudala bat naturaz gaindikoaz dudana, defraudatuko ez nauena. Eta horrek mantentzen nau zutik erokeria handirik ez dudala egiten nire bizitza arrunt honetan, nire pentsionista bizitzan.

Katoliko bakartia naiz, baina ez atea. Ez dut uste Eliza ama halakoen eskuetan dagoenik, dena ezkutuan, isilean, egiten bada ere.

Azken batean Elizaz nik diot errabino hark erran zuena, gizonetzkoen gauza bada berez eroriko da baina Jainkoaren baitatik badator ez dago modurik, asko ahalegindu arren, temati ere, horretan.

Ekumenismoa ere ekar daiteke, etorri egin zait, harira. Jesusek nahi gintuen bat eginda, diferente izan arren gure artean, baina gizonak ekarri dute bereizkeria eta banaketa, eta Harengandik badator desio hori, batasunarena, nik daukat

ezen batasun hori errazago egiten ahal dela egiazko fedea dutenen artean, minimo bat baina egiazkoa, eta ez materialisten artean. Eta denok gara bekatariak, fedea huts egiten du sarritan baino gehiagotan, mundua nola dagoen ikustea besterik ez dago hori egiaztatzeko, eta ekumenismoarena ere hor dago, aurrerapenak ikusten direla baina, momentuz behintzat, geldirik.

Atake zitala izan zen hura, zeren nik gerra terminoak ere erabiltzen badakit, eta gerra bat bezalakoa baita nire arimak enfrentatzen duena. Gaixotu nintzenetik konpainia gaizto ugari eduki ditut, ez didate atsedetik eman, oso biolentoak baitira halakoen malignidadeak, baina “gure Aita” nire zorigaiztoan errezatzen dudanero beti gogoratzen dut komunitatean errezatzekoa dela gure otoitzik inportanteena (bakarrik ere otoitz egiten ahal dela ahaztu gabe, Jesus ere bazen apartatzen Bere Aitari otoitz egiteko), eta ni isolatzeko ahalegin guztiak infernuetara bueltan bidali behar dira, handik baitatoz, duda barik. Mundua, deabrua eta haragia.

Gizaki helburu fundazioaren tratamenduan ere inor bakarrik uztea kulpa zen, eta horretara ni asko osatu nintzen. Handik ateratzean mundura bidaltzen ninduten arren.

Introspekzio lantxo honetan laburbilduta hauxe ateratzen dut garbi: gerra deklarazioa. Ongi uler bedi.

Amaitzeko txikitan ikasitako otoitz bat euskaratua:

Aingeru guardakoa,
konpainia goxoa,
ez nagizu bakarrik laga,
ez gauez ezta egunez ere.

Konpainia ezin ikusizkoa da, etsaia ezin ikusizkoa den moduan.

Horra hor gure armadak. San Migel arkanjeluak gidatuak, beti garaipenera, ni ez banaiz bide horretatik larregi aparta-

tzen, jakina. Eta garaipena ez dut hain urrun, familiarekin, Maria emaztearekin hain zuzen, hasi naiteke bakeak egiten. Urrutira begiratu gabe, hurrean baitut nik konbatea, matrimonioan. Gero datoz hortik kanpora daudenak, baina familiaratik ekilibratua aterez hasten dira horko komediak eta dramak.

Laburbildu beharko banu nire mundualdia, hauxe esango nuke: estigmaren kontrako ahaleginak egiten nabil etsietsian.

Roman Garmendia